


VILLA MARÍA DEL PILAR
D MAILA

ITSASARGI PASEALEKUA 51



Migel Irastortza, 1917

Deskribapena

Duen kokapena dela eta, etxearen bi orientazio dira nagusi; horregatik, hego-ekialdeko eta ipar-ekialdeko fatxadek konposizio antzekoa erakusten dute. Errepideak ia-ia erabat inguratzen duelarik eraikina, plataforma baten gaineko partzela eratu da; horrek bi altuera hartzen ditu, sotoko aprobetxamenduaz gain. Horren gainean, etxearen profila beheko solairua du, lehen solairua bizitza nagusi gisa, eta bigarren solairua teilatupeko gisa. Dorrea oinplanoaren erdiko posizio batean sartzen da, eta mende hasierako udaldiko bizitegien ohiko piezetako bat da. Halako soiltasun baten barnean, fatxaden lengoia klasizista da, eragin neoplatereskoak ere badituela. Basamentu, atal nagusi eta entablamentu sekuentzia argi eta garbi ikusten da, erlaitzetako eta dorreko frontoi neobarrokoko erliebeetako xehetasunekin batera.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: apaindura emokatuak, balkoietako burdin lanak, zurezko elementuak eta estalkiak. Plataformako murrutako harri horma.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.